EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Delegación Territorial de Vivienda de Bizkaia

EBAZPENA, 2019ko URTARRILAREN 22koa, ETXEBIZITZAKO BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARIARENA; HONEN BITARTEZ, LEIOAKO 101 ETXEBIZITZA SOZIAL ESLEITZEKO PROZEDURAN **ONARTUAK ETA BAZTERTUAK IZAN DIRENEN ZERRENDAK** ARGITARATZEN DIRA (EB2-0452/15-EC-000).

RESOLUCION DE 22 DE ENERO DE 2019 DEL DELEGADO TERRITORIAL DE VIVIENDA EN BIZKAIA, POR LA QUE SE PUBLICAN LAS **LISTAS DE ADMITIDOS/AS Y EXCLUIDOS/AS** EN EL PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACION DE 101 VIVIENDAS SOCIALES EN LEIOA (EB2-0452/15-EC-000).

## AURREKARIAK

1.- Leioako 101 etxebizitza sozial esleitzeko prozedura hasi zuen Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko azaroaren 19ko Agindua Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15ko Aginduaren –etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoaren– 48. artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusitakoari jarraiki eman zen.

2.- Aipatutako 2018ko azaroaren 19ko Aginduaren laugarren ebazpenean 2018ko abenduaren 10etik 21era bitarteko epea finkatu da (bi egunak barne) indarrean dagoen araudian aurreikusitako eskakizunak betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetza-unitateak Agindu horretan bertan zehazten den esleipen-prozeduran sar daitezen.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Delegación Territorial de Bizkaia

## ANTECEDENTES

1.- La Orden de 19 de noviembre de 2018 del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda que inicia el procedimiento de adjudicación de 101 viviendas sociales en el municipio de Leioa, se dicta de conformidad con lo previsto en el artículo 48 apartado 2 de la Orden de 15 de octubre de 2012 del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del registro de solicitantes de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial y Alojamientos Dotacionales de Régimen Autonómico.

2.- En el resuelvo cuarto de la citada Orden de 19 de noviembre de 2018 se fija el plazo, entre el 10 y el 21 de diciembre de 2018 (ambos inclusive), para que las personas o unidades convivenciales que cumpliendo los requisitos previstos en la normativa vigente se incorporen al procedimiento de adjudicación determinado en la misma Orden.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.- Etxebizitzako Lurralde ordezkaria da Ebazpen hau emateko organo eskuduna Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuko 19. artikuluaren arabera, eta 2012ko urriaren 15ko Aginduaren –etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoaren- 41 artikuluari lotuta.

1.- El Delegado Territorial de Vivienda es el órgano competente para dictar la presente Resolución en virtud de lo previsto en el artículo 19 del Decreto 77/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, en el que se recogen las funciones de los Delegados Territoriales de Vivienda, en relación con el artículo 41 de la Orden de 15 de octubre de 2012 del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del registro de solicitantes de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial y Alojamientos Dotacionales de Régimen Autonómico.

2.- Ebazpen honen bigarren aurrekarian aipatzen den epea amaitu ondoren, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dauden pertsonen edo bizikidetza-unitateen egoera (esleipen-prozeduran) aztertu da martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan –babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoan– eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15ko Aginduan –etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoan– aurreikusitakoari jarraiki.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Delegación Territorial de Bizkaia

2.- Finalizado el plazo al que se hace referencia en el antecedente segundo de esta Resolución, las incorporaciones realizadas por las personas o unidades convivenciales inscritas en el Registro de Solicitantes de Vivienda se han examinado de conformidad con lo previsto en el Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de las viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, y en la Orden de 15 de octubre de 2012 del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del registro de solicitantes de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial y Alojamientos Dotacionales de Régimen Autonómico.

Horren ondorioz, honako hau

En consecuencia,

EBAZTEN DUT:

RESUELVO

**1.-** Leioako 101 etxebizitza sozial esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak argitaratzea (EB2-0452/15-EC-000); zerrenda horiek Ebazpen honen 1. eta 2. eranskinetan jasotzen dira hurrenez hurren.

**2.-** Prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak hilabetez jarriko dira jendaurrean erakusgai Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean Herritarren Arretarako Zerbitzuaren iragarki taulan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Izan ere, Etxebizitzako sailburuordeari aurkeztu ahal izango zaio Ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsoa, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

**1.-** Publicar las listas de admitidos/as y excluidos/as en el procedimiento de adjudicación de 101 viviendas sociales en el municipio de Leioa (EB2-0452/15-EC-000) que se reflejan en los Anexos 1 y 2 de esta Resolución, respectivamente.

**2.-** Las listas de admitidos/as y excluidos/as se expondrán durante un mes en el tablón de anuncios del Servicio de Atención Ciudadana del Gobierno Vasco-Zuzenean y en el tablón electrónico de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La presente Resolución no agota la vía administrativa, pudiendo interponerse contra la misma Recurso de Alzada ante el Viceconsejero de Vivienda en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Bilbao, 2019ko urtarrilaren 22a
En Bilbao, a 22 de enero de 2019
**BIZKAIKO ETXEBIZITZA LURRALDE ORDEZKARIA,**
**EL DELEGADO TERRITORIAL DE VIVIENDA EN BIZKAIA,**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
*Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza*
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
*Delegación Territorial de Bizkaia*

**Izpta./Fdo.: Alfonso Gómez Fernández**